

ZENTSUAK ETA BIZTANLERIAREN ESTADISTIKAK: Euskal Herriko datuak homologatzea

## Euskal Herriko bost etxebizitzatik bat (%19,1) hutsik dago

Zentsuetako datuen arabera, Euskal Herrian 245.422 etxebizitza daude hutsik; bost etxebizitzatik bat (%19,1). Egiaz, datu horrek adierazten du Euskal Herriko etxebizitzaren %80,9 etxebizitza nagusi gisa erabiltzen direla; alegia, eguneroko bizitoki gisa; gainerako %19,1ekin gauza bat baino gehiago gerta daiteke: bigarren etxebizitza moduan erabiltzen dituzte; denboraldi turistikoan alokatzeko; espekulaziorako; bizitzeko ez beste edozertarako; edo, besterik gabe, hutsik daude.

Euskal Herrian, 245.422 etxebizitza inguru hutsik daude; hau da, ia bost etxebizitzatik bat (%19,1) ez da etxebizitza nagusia edo eguneroko bizitokia

(Ikusi 1. grafikoa)

Jakin badakigu, etxebizitza hutsen inguruko ikerketei esker, etxebizitza hutsei buruz eman dugun kopuru hori ez dela guztiz zehatza, izan ere, etxebizitzak hutsik dauden edo ez neurtzerakoan, zentsu akats handiak gertatzen dira: inkestek frogatu dutenez, zenbatu dituzten etxebizitza hutsen herenak ez daude hutsik (zentsu akatsak dira). Dena dela, kopuru handiez ari gara; datu horien arabera, zenbait herrialdetan etxebizitzaren laurdenak hutsik daude, eta zentsu akatsa alde batera utzita ere, portzentaje adierazgarriak dira. Akatsak akats, izan ere, milaka eta milaka etxebizitza hutsi buruz ari gara, gehiegi euskal herritar askok etxebizitza premia larria dutela kontuan hartzen badugu.

Euskal Herriko etxebizitza hutsen batez bestekoa Europako Batasunean, etxebizitzaren %14 daude hutsik. Gure inguruko herrialdeekin alderatuta, Frantziako Estatuak ehuneko gutxiagatik gaintzen dugu (han, %18 daude hutsik), baina Europako Batasunean etxe huts gehien duen herrialdearen azpitik gaude, Espainiako Estatuaren azpitik, alegia (han, etxebizitzaren ia herenak hutsik daude, %31 zehazki).

Batasuneko bano handiagoo da:

Euskal Herriko etxebizitza hutsen batez bestekoo Europako Batasuneko bano 5,1 puntu handiagoo da

(Ikusi 2. taula)

Zentsuetako datuen arabera, betiere, batez beste Nafarroa Garaia eta Lapurdik dute etxebizitza huts gehien. Nafarroa Garaian (%26,0) eta Lapurdin (%25,1) etxebizitzaren laurdenak baino gehiago daude hutsik. Beste muturrean, etxebizitza huts gutxi duen herrialdea Bizkaia da (%15,1 daude hutsik). Gainerako herrialdeetan, etxebizitza hutsen batez bestekoa %20 ingurukoa da: Nafarroa Beherean %20,6koa, Zuberoan %20,3koa, Araban %18,2koa eta Gipuzkoan %17,1koa.

Nafarroa Garaian etxebizitzaren %26,0 daude hutsik, Lapurdin %25,1, Nafarroa Beherean %20,6, Zuberoan %20,3, Araban %18,2, Gipuzkoan %17,1 eta Bizkaian %15,1

(Ikusi 3. mapa eta 4. grafikoa)

Udalerrikako datuei erreparatuz, ezberdintasun handiak antzematen ditugu: Gipuzkoako Arrasaten edo Bizkaiko Portugaleten, adibidez, etxebizitzaren %10 baino gutxiago omen daude hutsik. Beste muturrean ditugu Nafarroa Garaiko Abaurreapea (etxebizitzaren %81,3 hutsik), Arabako Bastida (%72,3) edo Lapurdiko Donibane Lohizune (%45,3). Oro har, badirudi etxebizitza hutsen kopuru handiagoo ditugula bai turismoak pisu handia hartu duen udalerrietan (Lapurdin egoera horretan daude Getariako eta Donibane Lohizuneko etxebizitzaren ia erdiak, adibidez), bai ekonomia garapen guneetatik urrun gelditu diren lurraldeetan. Hiriburuak, berriz, Euskal Herriko batez bestekoaren azpitik gelditzen dira gehienak, Donibane Garazi eta Iruñea izan ezik.

Herrialdeetako hiriburu gehienetan, Donibane Garazin eta Iruñean izan ezik, etxebizitza hutsen batez bestekoo Euskal Herriko %19,1aren azpitik dago

(Ikusi 5. mapa eta 6. taula)

## **Euskal Herriko hamar etxebizitzatetik bi (%17,0) baino ez dira bizitza bakarreko eraikinak**

Euskal Herriko etxebizitzak bizitza bakarrekoak edo bizitza askotakoak diren aztertzen badugu, ikusiko dugu bostetik lau baino gehiago (%83,0) bizitza askotako eraikinetan daudela. Bestela esanda, Euskal Herrian, bizitza bakarreko eraikinak 220.815 dira, etxebizitzaren %17,0 baino ez.

(Ikusi 7. grafikoa)

Herrialdeka, ezberdintasun esanguratsuak antzematen ditugu. Zuberoan eta Nafarroa Beherean, adibidez, etxebizitza gehien-gehienak bizitza bakarrekoak dira, %86,6 Zuberoan eta %71,0 Nafarroa Beherean. Horrelako eraikinak asko dira, halaber, Lapurdin (%44,9) eta Nafarroa Garaian (%29,5).

Araba da, bestalde, Euskal Herriko ehunekora gehien hurbiltzen den herrialdea (%16,0). Azkenik, Gipuzkoa (%7,2) eta Bizkaia (%6,8) ez dira iristen batez besteko horren erdira ere; euskal herrialdeetatik, horiek dute bizitza bakarreko eraikin gutxien.

(Ikusi 8. taula eta 9. grafikoa)

Herrialde bakoitzaren barruan ere, ezberdintasun handiak antzematen dira eskualdez eskualde eta udalerriz udalerririk. Lapurdikoa da, segur aski, adibiderik argiena. Herrialde horretan, oso banaketa ezberdina erakusten dute kostaldeak eta barnealdeak. Kostaldean, bizitza askotako eraikinen eredia da nagusi. Barnealdean, berriz, Nafarroa Beherearen eta Zuberoaren antzera, bizitza bakarreko etxebizitzak gailentzen dira. Udalerriak ere, ezberdintasun nabarmenak antzematen ditugu: etxebizitza guztiak bizitza bakarrekoak dituzten udalerrietatik hasi eta beste muturreraino. Oro har, harreman argia ikusten da etxebizitzak eraikitzeko ereduaren eta biztanle kontzentrazioaren artean: biztanleria gehien pilatzen den udalerririk eta inguruetan, gehiago dira bizitza askotako eraikinak, eta guztiak ez hain populatueta eta nekazari guneetan, bereziki, bizitza bakarreko eraikinen eredia hedatuago dago.


(Ikusi 10. mapa eta 11. taula)

Euskal Herrian, etxebizitzaren %17,0 baino ez dira bizitza bakarrekoak: Bizkaian %6,8, Gipuzkoan %7,2, Araban %16,0, Nafarroa Garaian %29,5, Lapurdin %44,9, Nafarroa Beherean %71 eta Zuberoan %86,6

Herrialde bakoitzaren barruan ezberdintasun handiak antzematen dira: Lapurdin, esaterako, kostaldean bizitza askotako eraikinen eredia da nagusi, eta barnealdean, berriz, bizitza bakarrekoena

Taula eta grafikoak

**1. Etxebizitza familiarrak, erabilera motaren arabera. Euskal Herria, 2001 (%)**



**Iturria: Euskal Herriko Datu Talaia.** Biztanleria eta Etxebizitza zentsuak (INE, INSEE).

\* **Oharra:** Lapurdiko, Nafarroa Behereko eta Zuberoako datuak 1999koak dira. Sailkatu gabeko etxebizitzak kanpoan utzi ditugu.


**2. Etxebizitza familiarrak, erabilera motaren arabera, herrialdeka. Euskal Herria, 2001**

	Etxebizitza familiarrak	Etxebizitza nagusiak	Etxebizitza hutsak	Etxebizitza familiarrak	Etxebizitza nagusiak	Etxebizitza hutsak
	Kop.	Kop.	Kop.	%	%	%
Araba	124.957	102.230	22.727	100,0	81,8	18,2
Bizkaia	467.850	397.361	70.489	100,0	84,9	15,1
Gipuzkoa	292.843	242.708	50.135	100,0	82,9	17,1
Lapurdi	126.366	94.611	31.755	100,0	74,9	25,1
Nafarroa Beherea	12.597	9.998	2.599	100,0	79,4	20,6
Nafarroa Garaia	254.954	188.772	66.182	100,0	74,0	26,0
Zuberoa	7.560	6.025	1.535	100,0	79,7	20,3
<b>Euskal Herria</b>	<b>1.287.127</b>	<b>1.041.705</b>	<b>245.422</b>	<b>100,0</b>	<b>80,9</b>	<b>19,1</b>

**Iturria: Euskal Herriko Datu Talaia.** Biztanleria eta Etxebizitza zentsuak (INE, INSEE).


\* **Oharra:** Lapurdiko, Nafarroa Behereko eta Zuberoako datuak 1999koak dira. Sailkatu gabeko etxebizitzak kanpoan utzi ditugu.

### 3. Etxebizitza hutsak, herrialdeka. Euskal Herria, 2001 (%)




Iturria: **Euskal Herriko Datu Talaia**. Biztanleria eta Etxebizitza zentsuak (INE, INSEE).  
\* Oharra: Lapurdiko, Nafarroa Behereko eta Zuberoako datuak 1999koak dira.

### 4. Etxebizitza familiarrak, erabilera motaren arabera, herrialdeka. Euskal Herria, 2001 (%)



Iturria: **Euskal Herriko Datu Talaia**. Biztanleria eta Etxebizitza zentsuak (INE, INSEE).  
\* Oharra: Lapurdiko, Nafarroa Behereko eta Zuberoako datuak 1999koak dira. Sailkatu gabeko etxebizitzak kanpoan utzi ditugu.

**5. Etxebizitza hutsak, udalerrrika. Euskal Herria, 2001 (%)**



**Iturria:** *Euskal Herriko Datu Talaia*. Biztanleria eta Etxebizitza zentsuak (INE, INSEE).

\* **Oharra:** Lapurdiko, Nafarroa Behereko eta Zuberoako datuak 1999koak dira.


**6. Etxebizitza hutsak (udalerrri esanguratsiak). Euskal Herria, 2001 (%)**

Hiriburua			Etxebizitza hutsak pisu gehien		Etxebizitza hutsak pisu gutxien		25 udalerrri handien artean etxebizitza hutsak pisu gehien		25 udalerrri handien artean etxebizitza hutsak pisu gutxien	
Udalerrria %			Udalerrria	%	Udalerrria	%	Udalerrria	%	Udalerrria	%
<b>EUSKAL HERRIA</b>	Euskal Herria	19,1	Abaurrepea (NG)	81,3	Hiriburu (L)	4,2	Biarritz/Miarritze (L)	36,0	Arrasate (G)	8,5
			Bastida (A)	72,3	Larribarre-Sorhapürü (NB)	4,5	Zarautz (G)	32,1	Portugalete (B)	8,5
			Bakio (B)	72,0	Lehuntze (L)	4,6	Barañain (NG)	26,4	Sestao (B)	9,0
			Gazteluberri (NG)	71,4	Mugerre (L)	4,8	Tutera (NG)	21,2	Errenteria (G)	9,4
			Ezporogi (NG)	69,0	Gamarte (NB)	5,4	Iruñea (NG)	21,0	Basauri (B)	10,0
<b>Araba</b>	Gasteiz	11,5	Bastida	72,3	Laudio	11,2	Bastida	72,3	Laudio	11,2
			Trebiñu	62,8	Agurain	18,1	Trebiñu	62,8	Agurain	18,1
			Lagran	61,9	Amurrio	19,1	Gobiaran	57,2	Amurrio	19,1
			Añana	60,5	Dulantzi	21,4	Guardia	50,0	Dulantzi	21,4
			Leza	58,1	Iruraitz-Gauna	22,8	Lantaron	48,1	Aramaio	24,2
<b>Bizkaia</b>	Bilbo	11,2	Bakio	72,0	Ermua	6,8	Lekeitio	43,6	Ermua	6,8
			Sukarrieta	64,7	Portugalete	8,5	Sopela	26,1	Portugalete	8,5
			Ea	58,1	Sestao	9,0	Mungia	20,9	Sestao	9,0
			Gorliz	56,1	Basauri	10,0	Bermeo	19,3	Basauri	10,0
			Ibarrangelu	54,9	Santurtzi	10,9	Zalla	18,7	Santurtzi	10,9
<b>Gipuzkoa</b>	Donostia	14,0	Altzaga	50,0	Arrasate	8,5	Zarautz	32,1	Arrasate	8,5
			Beizama	47,6	Errenteria	9,4	Hondarribia	30,0	Errenteria	9,4
			Bidania-Goiatz	44,9	Lasarte-Oria	10,9	Zumaia	23,7	Lasarte-Oria	10,9
			Orexa	44,7	Anoeta	11,6	Azpeitia	23,2	Legazpi	11,9
			Mutiloa	44,2	Legazpi	11,9	Azkoitia	21,7	Lezo	12,6
<b>Lapurdi</b>	Baiona	12,5	Donibane Lohizune	45,3	Hiriburu	4,2	Donibane Lohizune	45,3	Hiriburu	4,2
			Hendaia	41,7	Lehuntze	4,6	Hendaia	41,7	Lehuntze	4,6
			Getaria	40,4	Mugerre	4,8	Ziburu	38,6	Mugerre	4,8
			Ziburu	38,6	Bokale	6,2	Bidarte	36,1	Bokale	6,2
			Bidarte	36,1	Urketa	6,9	Biarritz/Miarritze	36,0	Urketa	6,9
<b>Nafarroa Beherea</b>	Donibane Garazi	23,9	Hozta	42,9	Larribarre-Sorhapürü	4,5	Bidarraia	31,7	Behaskane-Laphizketa	6,5
			Behorlegi	39,4	Gamarte	5,4	Uharte-Garazi	27,8	Oragarre	8,0
			Lekunberri	38,3	Behaskane-Laphizketa	6,5	Arrosa	26,8	Amenduze-Unaso	10,7
			Mendibe	35,0	Lukuze-Altzumarta	7,3	Orzaize	24,3	Larزابale-Arroze-Zibitze	11,0
			Bunuze	31,9	Oragarre	8,0	Banka	24,3	Samatze	12,2
<b>Nafarroa Garaia</b>	Iruñea	21,0	Abaurrepea	81,3	Barbarin	10,3	Zangoza	39,2	Zizur Nagusia	12,5
			Gazteluberri	71,4	Zizur Nagusia	12,5	Baztan	37,3	Atarrabia	13,6
			Ezporogi	69,0	Uharte Eguesibar	12,7	Bera	36,4	Burlata	14,1
			Esa	68,0	Berriain	13,4	Egues	36,2	Aranguren	14,7
			Azuelo	63,6	Atarrabia	13,6	Lodosa	36,0	Berriozar	16,0
<b>Zuberoa</b>	Maule-Lexarre	12,7	Urdatx/ Santa-Grazi	36,8	Ürrüstoi-Larrabile	5,6	Larraine	66,9	Garindaine	8,6
			Ligi-Atherei	38,4	Garindaine	8,6	Altzai-Altzabeheti-Zunharreta	43,0	Bildoze-Onizepea	8,9
			Montori = Berorize	38,4	Bildoze-Onizepea	8,9	Montori = Berorize	38,4	Lohitzüne-Oihergi	10,5
			Altzai-Altzabeheti-Zunharreta	43,0	Lohitzüne-Oihergi	10,5	Ligi-Atherei	38,4	Sohüta	10,9
			Larraine	66,9	Sohüta	10,9	Urdatx/ Santa-Grazi	36,8	Gotaine-Irabarne	11,1

 Iturria: **Euskal Herriko Datu Talaia**. Biztanleria eta Etxebizitza zentsuak (INE, INSEE).

 \* **Oharra**: Lapurdiko, Nafarroa Behereko eta Zuberoako datuak 1999koak dira.

**7. Etxebizitzak, eraikinak dituen bizitza kopuruaren arabera. Euskal Herria, 2001 (%)**



**Iturria: Euskal Herriko Datu Talaia.** Biztanleria eta Etxebizitza zentsuak (INE, INSEE).  
\* **Oharra:** Lapurdiko, Nafarroa Behereko eta Zuberoako datuak 1999koak dira.

**8. Etxebizitzak, eraikinak dituen bizitza kopuruaren arabera, herrialdeka. Euskal Herria, 2001 (%)**


	Etxebizitza nagusien kopurua	Etxebizitzak, bizitza bakarreko eraikinetan	Etxebizitzak, bizitza askotako eraikinetan	Etxebizitza nagusiak	Bizitza bakarrekoak	Bizitza bat baino gehiagokoak
	Kop.	Kop.	Kop.	%	%	%
Araba	126.205	20.200	106.005	100,0	16,0	84,0
Bizkaia	470.053	31.736	438.317	100,0	6,8	93,2
Gipuzkoa	295.400	21.263	274.137	100,0	7,2	92,8
Lapurdi	126.366	53.367	72.999	100,0	42,2	57,8
Nafarroa Beherea	12.597	11.223	1.374	100,0	89,1	10,9
Nafarroa Garaia	258.721	76.371	182.350	100,0	29,5	70,5
Zuberoa	7.560	6.655	905	100,0	88,0	12,0
<b>Euskal Herria</b>	<b>1.296.902</b>	<b>220.815</b>	<b>1.076.087</b>	<b>100,0</b>	<b>17,0</b>	<b>83,0</b>

**Iturria: Euskal Herriko Datu Talaia.** Biztanleria eta Etxebizitza zentsuak (INE, INSEE).  
\* **Oharra:** Lapurdiko, Nafarroa Behereko eta Zuberoako datuak 1999koak dira.


**9. Etxebizitzak, eraikinak dituen bizitza kopuruaren arabera, herrialdeka. Euskal Herria, 2001 (%)**

**Iturria: Euskal Herriko Datu Talaia.** Biztanleria eta Etxebizitza zentsuak (INE, INSEE).

\* **Oharra:** Lapurdiko, Nafarroa Behereko eta Zuberoako datuak 1999koak dira.



**10. Etxebizitzak, bizitza bakarreko eraikinetan, udalerrika. Euskal Herria, 2001 (%)**



**Iturria: Euskal Herriko Datu Talaia.** Biztanleria eta Etxebizitza zentsuak (INE, INSEE).

\* **Oharra:** Lapurdiko, Nafarroa Behereko eta Zuberoako datuak 1999koak dira.

**11. Etxebizitzak, bizitza bakarreko eraikinetan (udalerrri esanguratsuak). Euskal Herria, 2001**

Hiriburua			Bizitza bakarreko eraikinek pisu gehien		Bizitza bakarreko eraikinek pisu gutxien		25 udalerrri handienen artean bizitza bakarreko eraikinek pisu gehien		25 udalerrri handienen artean bizitza bakarreko eraikinek pisu gutxien	
			Udalerrria	%	Udalerrria	%	Udalerrria	%	Udalerrria	%
<b>EUSKAL HERRIA</b>	Euskal Herria	17,0	Ahatsa-Altzieta-Bazkazane (NB)	100,0	Ermua (B)	0,5	Angelu (L)	46,1	Bilbo (B)	1,0
			Ainharbe (Z)	100,0	Bilbo (B)	1,0	Biarritz/Miarritze (L)	27,6	Iruñea (NG)	1,1
			Aintzila (NB)	100,0	Iruñea (NG)	1,1	Tutera (NG)	19,5	Portugalete (B)	1,3
			Amorotze-Zokotze (NB)	100,0	Portugalete (B)	1,3	Baiona (L)	15,1	Eibar (G)	1,6
			Anhauze (NB)	100,0	Eibar (G)	1,6	Erandio (B)	6,8	Basauri (B)	1,6
<b>Araba</b>	Gasteiz	3,1	Iruraitz-Gauna	98,9	Laudio	6,3	Zigoitia	96,2	Laudio	6,3
			Kuartango	98,0	Agurain	17,5	Arratzu-Ubarrundia	89,8	Agurain	17,5
			Zalduondo	97,5	Amurrio	21,6	Gobiaran	89,1	Amurrio	21,6
			Zigoitia	96,2	Oion	25,1	Lantaron	83,8	Oion	25,1
			Barrundia	95,8	Artziniega	27,0	Zuia	75,4	Artziniega	27,0
<b>Bizkaia</b>	Bilbo	1,0	Kortezubi	92,6	Ermua	0,5	Abanto-Zierbena	20,2	Ermua	0,5
			Nabarniz	88,9	Portugalete	1,3	Zalla	16,9	Portugalete	1,3
			Ubide	87,4	Ondarroa	1,6	Mungia	15,9	Ondarroa	1,6
			Artzentales	87,2	Basauri	1,6	Elorrio	12,9	Basauri	1,6
			Muxika	87,1	Santurtzi	1,7	Trapagaran	11,5	Santurtzi	1,7
<b>Gipuzkoa</b>	Donostia	4,6	Beizama	95,1	Eibar	1,6	Oiartzun	31,6	Eibar	1,6
			Orendain	86,7	Pasaia	1,7	Oñati	12,9	Pasaia	1,7
			Gaztelu	86,4	Errenteria	1,7	Azkoitia	11,0	Errenteria	1,7
			Errezil	81,4	Ordizia	3,1	Hondarribia	10,0	Ordizia	3,1
			Altzaga	75,7	Lasarte-Oria	3,3	Azpeitia	8,7	Lasarte-Oria	3,3
<b>Lapurdi</b>	Baiona	15,1	Gixune	98,4	Donibane Lohizune	22,0	Urketa	97,9	Donibane Lohizune	22,0
			Haltsu	98,0	Hendaia	25,0	Lehuntze	97,8	Hendaia	25,0
			Urketa	97,9	Biarritz/Miarritze	27,6	Ahurti	97,2	Biarritz/Miarritze	27,6
			Lehuntze	97,8	Ziburu	32,8	Mugerre	96,1	Ziburu	32,8
			Makea	97,6	Getaria	42,2	Itsasu	95,1	Angelu	46,1
<b>Nafarroa Beherea</b>	Donibane Garazi	61,8	Mendibe	100,0	Heleta	51,2	Behaskane-Laphizketa	100,0	Heleta	51,2
			Mithiriña	100,0	Bunuze	55,1	Bidarraia	100,0	Donapaleu	68,0
			Ostankoa	100,0	Izura-Asme	64,6	Ezterenzubi	100,0	Bidaxune	73,9
			Suhuskune	100,0	Gamarte	67,6	Iholdi	100,0	Akamarre	84,3
			Zaro	100,0	Donapaleu	68,0	Mithiriña	100,0	Aldude	89,6
<b>Nafarroa Garaia</b>	Iruñea	1,1	Nazar	100,0	Barañain	1,7	Mendabia	69,7	Barañain	1,7
			Okor	100,0	Burlata	1,8	Cintruenigo	68,7	Burlata	1,8
			Olexua	100,0	Atarrabia	5,1	Egues	68,4	Atarrabia	5,1
			Urraulgoiti	100,0	Antsoain	7,0	Cascante	62,6	Antsoain	7,0
			Villamayor de Monjardin	100,0	Berriozar	7,0	Aranguren	59,2	Berriozar	7,0
<b>Zuberoa</b>	Maule-Lextarre	66,3	Ozaze-Zühara	100,0	Atharratze-Sorholüze	67,3	Domintxaine-Berroeta	100,0	Atharratze-Sorholüze	67,3
			Pagola	100,0	Arüe-Ithorrotze-Olhaibi	70,1	Ezpeize-Ündürene	100,0	Arüe-Ithorrotze-Olhaibi	70,1
			Urdiñarbe	100,0	Jestaze	80,5	Muskildi	100,0	Montori = Berorize	86,9
			Ürrüstoi-Larrabile	100,0	Montori = Berorize	86,9	Pagola	100,0	Garindaine	90,5
			Zalgize-Donetztebe	100,0	Garindaine	90,5	Urdiñarbe	100,0	Sohüta	91,8

**Iturria:** Euskal Herriko Datu Talaia. Biztanleria eta Etxebizitza zentsuak (INE, INSEE).

\* **Oharra:** Lapurdiko, Nafarroa Behereko eta Zuberoako datuak 1999koak dira.

- Prentsa ohar hau egiteko erabili ditugun datu guztiak helbide honetan aurkituko dituzu:

**[WWW.datutalaia.net](http://WWW.datutalaia.net)**

- **Datu Talaia, Gaindegiako** *Estatistika Sailak*, Espainiako eta Frantziako estatueta azken zentsuetan (2001 eta 1999ekoak, hurrenez hurren) oinarrituta egin dituen homologazio estatistikoaren emaitza dira datu horiek. Lehen aldiz, Euskal Herri osoko ikuspegia eskaintzen da. Euskal Herriko datuak lortzeko egin ditugun prozeduren berri jakiteko, ikus web orriko "Iturriak eta metodologia oharra" txostena.
- **Jatorrizko datuak:** Biztanleria zentsuak eta Biztanleriaren estatistikak (EUSTAT, INE eta INSEE). Europako estatueta datuak: EUROSTAT.

**Argibide gehiagorako edo  
Prentsa Ohar zaharrak hiru hizkuntzetan kontsultatzeko:**  
Euskal Herriko Datu Talaia  
[www.datutalaia.net](http://www.datutalaia.net)